

Prentsa-oharra

EDUARDO CHILLIDAREN *TOPAGUNEA IV* ESKULTURA
MONUMENTALA CHILLIDA LEKURA JOANGO DA BIDAIAN
Laguntzaileak: Tecnalía eta Loire Gestamp



Bilbon, 2023ko martxoaren 3an

Eduardo Chillidaren (1924–2002) *Topagunea IV* (1973), Arte Ederren Bilboko Museoko eskultura monumental eta ikonikoenetakoa, Chillida Lekura (Hernani, Gipuzkoa) joango da bidaiari martxoaren 3an, eta, bertan, hurrengo hilabeteetan egongo da erakusgai, Fosterrek eta Uriartek museoa handitzeko diseinatu dituzten obrak amaitzen diren arte. Gertaera hori, gainera, atariko paregabea izango da, eskulturagile donostiarraren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko asmoz museoak 2024an garatuko duen *Eduardo Chillida 100 urte* jarduera-programari begira.



Topagunea IV eskulturaren instalazioa proiektu berritzailea da, eta Euskadiko arte munduaren eta sektore industrial zein teknologikoaren arteko sinergiak sortzen ditu. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesa dauka.

Honako hauexen laguntza jaso da proiektuan: Tecnalía, Estatuko ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena dena; eta Loire Gestamp, Estatuko makina-erremintaren fabrikatzaile handienetakoa dena eta Hernanin kokatuta dagoena. Horrez gain, eskultura monumental mugitzeko orduan, lurraldeko enpresa hauen arteko lankidetzak estua ere garatuko da: Grúas Goiherri, lekualdatzeko; Embalan 3, bilgarrian sartzeko; eta Transbillasante, garraiatzeko.

Eskulturaren instalazioa Chillida Lekuko *Zero Grabitate* erakusketaren barruan dago kokatuta, eta, bertan, lebitazioaren kontzeptua zein grabitatearen legearen aurkako borroka arakutzen dira. Ideia hori *Topagunea* serieko hormigoizko eskulturetan gauzatzen da, batez ere. *Topagunea IV* altzairuzko kableen bidez dago esekita, eta lurzorutik zentimetro batzuetara dago kokatuta. Gorapen arin horren ondorioz, pisua “ezereztu” egiten da, eta materialak lebitatu egiten du.

Datorren martxoaren 30ean Chillida Lekun aurkeztu ondoren, pieza bertan egongo da erakusgai, harik eta Bilboko museoa handitzeko obrak amaitzen diren arte. 2024an, *Topagunea IV* berriro bueltatuko da

Bilbora, eta harrera-guneko atari berrian jarriko da ikusgai. Horrela, eskulturagileak giza topagunea adierazteko zeukan asmoa berreskuratuko da; artearekiko topagunea, kasu honetan.

Topagunea IV

Lan hau *Topagunea* izenburu generikoa duten zazpi piezak osatutako serieko laugarrena da; Chillidak José Antonio Fernández Ordóñez ingeniariarekin batera egin zituen lan horiek hamarkada batean (1964tik 1974ra). Eskala monumentalekoak dira, eta leku publikoetan erakusgai jartzea dute helburu. Hori dela eta, eskulturagilearen hitz hauek eskultura horien ekoizpena bultzatu zuen espirituaren adierazgarri dira: “topaguneak, elkarriketarako eta bizikidetzarako lekuak”.

Chillidak eskultura hauetan jorratutako oinarrizko ikerketetako bat formen egituraketa espaziala izan zen, baita inguratzen dituen kanpoko eremuaren eta haien barruko eremuaren arteko harremana ere. Berak idatzi zuenez, “arazo berbera dago nire lan gehienetan: kanpoko bolumen positiboen ondorioa eta jatorria den ‘barruko eremuarena’... nik neuk hiru dimentsioko hutsa zehaztu nahi dut hiru dimentsioko betearren bidez, aldi berean haien arteko nolabaiteko elkarriketa ezartzeko”.

Piezek badute beste ezaugarri bateratu bat (serieko lehenengo biek izan ezik, egurrezkoak eta Corten altzairuzkoak dira-eta), hau da, hormigoï armatuaren erabilera. Chillidak elementu horren adierazpen-ezaugarriak gorai patzen zituen. Burdinazko egitura eta hartxintzar-osaketa agerian daudenez, badirudi materialak arnasa hartzen duela. Horren ondorioz lortutako eskulturak leku arkitektonikoa sortzen du, baina baita organikoa ere.

Topagunea IV eskulturaren pisua 13,5 tonatik gorakoa da, eta 215 x 475 x 408 cm neurtzen du. 1973tik 1974ra bitartean egin zuen, eta, 1982an, Chillidak berak dohaintzan eman zion museoari. Orduan, bere ikuskaritza zuzenaren pean jarri zen eraikin modernoko antzinako beheko solairuan. 2000ko ekainean, berriro ere bere zuzendaritzapean, eraikin modernotik zabaltzen den gaur egungo Chillida plazan lekurtatu zen pieza.

2017an, museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailak harrizko materialetako teknikari espezialista eta eskulturagilearen hormigoietako jarduketetarako erreferentea den Javier Chillidaren laguntzaz egin zuen eskultura kontserbatzeko eta zaharberritzeko erabateko tratamendua.